IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA-EUSKAL HERRIA

Espedientea: / Expediente:	**2026WKPI0005**
Titularra: / Titular:	IBARRAKO UDALA
Gaia: / Asunto:	KULTUR IKASTAROEN ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

KULTUR IKASTAROEN ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratu honen objektua edo xedea Ibarrako Udaleko kultura eta gazteria sailak antolatu ohi dituen ikastaro eta tailerren zerbitzua ematea da, Baldintza Teknikoen Plegu honetan eta Administrazio Klausula Partikularren Agirian jasotzen denarekin bat etorriz.

Zerbitzu honek, kultura eta gazteria sailak ezarritako egutegiaren baitan, ikasturte zehatz batean eman beharreko ikastaroen diseinu orokorra eta ikastaroak ematea hartzen ditu bere baitan.

Lizitazio honen xedea gazte eta helduei zuzendutako ikastaro orokorren programazio baten menpe dago eta, gutxienez, gai hauei buruz aritu beharko dira:

- Arte plastikoak
- Eskulanak
- Arte eszenikoak
- Ikus-entzunezko arteak
- Bestelako gai batzuk: Osasuna, sukaldaritza, etxeko oinarrizko konponketak…

Kontratuaren iraunaldia 2026ko irailaren 1etik 2028ko ekainaren 30a artekoa izango da, biak barne (2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteei dagokiena)

Kontratuak bi luzapen eduki ahalko ditu, erakunde kontratatzailearen alde bakarreko nahitara; luzapen hauek 2028-2029 eta 2029-2030 ikasturteekin bat etorriko dira, irailaren 1etik ekainaren 30era, biak barne.

CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE TALLERES CULTURALES

PLIEGO DE LAS CLÁUSULAS TÉCNICAS

1.- OBJETO DEL CONTRATO.

El objeto de este contrato es la prestación del servicio de cursos y talleres que organiza habitualmente el Departamento de Cultura y Juventud del Ayuntamiento de Ibarra, de conformidad con lo establecido en el presente Pliego de Técnicos y en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Este servicio comprende, dentro del calendario establecido por el Departamento de Cultura y Juventud, el diseño general de los cursos a impartir en un curso escolar concreto y la impartición de los mismos.

El objeto de la presente licitación está sujeto a una programación de cursos generales dirigidos a jóvenes y adultos sobre, al menos, las siguientes materias:

• Artes plásticas
• Manualidades
• Artes escénicas
• Artes audiovisuales
• Otros temas salud, cocina, reparaciones domésticas básicas…

La duración del contrato será desde el 1 de septiembre de 2026 hasta el 30 de junio de 2028 (duración correspondiente a los cursos 2026-2027 y 2027-2028).

El contrato podrá tener dos prórrogas, a voluntad unilateral de la entidad contratante, que se corresponderán con los cursos escolares 2028-2029 y 2029-2030, del 1 de septiembre al 30 de junio, ambos inclusive.

ESKU0b760791-64f3-4f72-8ed6-c6a0051d2d34

San Bartolome plaza, 2 – ☎ 943 671138- 🖷 943 673852 - 20400 Ibarra ● Gipuzkoa www.ibarra.eus

2.- ZERBITZUAREN FUNTSA ETA HELBURUAK.

Ibarrako Udalak herritartasun aktiboa eta parte-hartzailea sustatzea du helburu, Udalaren eskumena den kultur sustapenaren eta jarduera kulturalen alorrean hain zuzen ere.

Kontratuaren helburu zuzena da kultur etxean nahiz beste udal eraikin batzuetan kultur arloko ikastaroak eta tailerrak eskaintzea.

Kultur ikastaroen eta tailerren bitartez, Ibarrako herritarrei beren aisialdian alternatiba ludiko-hezitzaile bat eskaintzeaz gain, Ibarrako bizitza sozialean parte har dezaten aukera eskaintzea beharrezkotzat jotzen da. Indibidualismotik eta norbanakoaren beharrez haratago, kolektiboaren eta talde-kohesioaren funtsa eta izaera ahalbidetzen eta indartzen duten espazio soziokultural euskaldunak eraikitzea nahi da.

Era berean, ezagutza arlo ezberdinei dagokien trebakuntza eskaintzeaz gain, balioetan oinarritutako hezkuntza, norberaren ahalduntzea, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, dibertsitatearekiko errespetua eta tolerantzia sustatu nahi da. Guztiarekin, Ibarrako herritarrei zuzendutako aisialdi aktibo, kritiko eta gogoetatsua garatzeko aukera sustatu nahi da.

3.- ZEHARKAKO LERROAK.

- Kultur ikastaro eta tailerretan **gizon eta emakumeen berdintasuna** bermatzeko bitartekoak jarriko dira: emakume eta gizonezkoentzat erakargarria den ikastaroen eskaintza egingo da, hizkuntzaren erabilera ez sexista burutuko da, garatuko diren edukietan zein eta erabiliko diren irudietan emakume eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua bermatuko da, eta oro har, zerbitzuan hezkidetza bermatuko da.

2.- FUNDAMENTO Y OBJETIVOS DEL SERVICIO.

El Ayuntamiento de Ibarra tiene como objetivo promover una ciudadanía activa y participativa, en materia de promoción cultural y actividades culturales de competencia municipal.

El objeto directo del contrato es la oferta de cursos y talleres culturales tanto en la Casa de Cultura como en otros edificios municipales.

A través de cursos y talleres culturales, se considera necesario ofrecer a la ciudadanía de Ibarra, además de una alternativa lúdico-educativa en su tiempo libre, la posibilidad de participar en la vida social de Ibarra. Más allá del individualismo y de las necesidades individuales, se pretende construir espacios socioculturales euskaldunes que permitan y refuercen la esencia y el carácter del colectivo y de la cohesión colectiva.

Asimismo, además de ofrecer formación correspondiente a las diferentes áreas de conocimiento, se pretende fomentar la educación en valores, el empoderamiento personal, la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres, el respeto a la diversidad y la tolerancia. Con todo se pretende fomentar el desarrollo de un ocio activo, crítico y reflexivo dirigido a la población de Ibarra.

3.- LÍNEAS TRANSVERSALES.

• En los cursos y talleres culturales se pondrán los medios para garantizar la **igualdad de mujeres y hombres**: se realizará una oferta de cursos atractivos para mujeres y hombres, se hará un uso no sexista del lenguaje, se garantizará una presencia equilibrada y no estereotipada de mujeres y hombres en los contenidos que se desarrollen y en las imágenes que se utilicen y, en general, se garantizará la coeducación en el servicio.

ESKU0b760791-64f3-4f72-8ed6-c6a0051d2d34

San Bartolome plaza, 2 – ☎ 943 671138- 🖷 943 673852 - 20400 Ibarra ● Gipuzkoa www.ibarra.eus

- **Inklusioa eta integrazioa:** Parte-hartzaileen artean dagoen aniztasuna (adina, jatorria, sinesmena, gaitasuna, eta abar) kontuan hartuko da eta dibertsitatea aintzakotzat edukiko da. Ikastaroetan arreta eskainiko zaie parte-hartzaile bakoitzaren berezko beharrei, guztientzako eta bakoitzarentzako esanguratsua izango den esku-hartze hezitzailea garatuz. Arreta berezia eskainiko zaie premia berezia dituzten pertsonei (gizartean zailtasunak dituztenak, urritasun fisikoak, etorkinak,…).

- **Euskara** izango da zerbitzuko hizkuntza. Batez ere erabilera soziala indartzeko lana egingo da, parte-hartzaileei euskaraz bizitzeko aukera erreala eskaintzeko.

  Erabiltzaile bakoitzaren hizkuntza errealitatea kontutan hartuta, euskararen erabilera sustatuko da, bai parte-hartzaile eta irakasleen artean baita parte-hartzaileen artean ere.

4.- ZERBITZUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK.

1. Agiri honetan eta Baldintza Administratibo zehatzen Agirian ezarritako baldintza tekniko, ekonomiko eta administratiboen arabera beteko da kontratua. Halaber, esleipen honen xede den jarduera burutzeko Kultura eta Gazteria Zerbitzuak emandako aginduak beteko dira.

2. Kultur ikastaro eta tailer zerbitzuak, Ibarrako herritarrei aisialdian alternatiba ludiko-hezitzailea eskaintzea du helburu. Era berean, ezagutza arlo ezberdinei dagokien trebakuntza eskaintzeaz gain, herritartasun aktiboa sustatzen duen espazio soziokulturala izatea nahi da.

3. Adin-tarte eta kolektibo ezberdinei egokitutako ikastaro eta tailerren eskaintza egin nahi da, eta gutxienez,

• **Inclusión e integración**: se tendrá en cuenta la diversidad existente entre las personas participantes (edad, origen, creencias, capacidad, etc.) y se tendrá en cuenta la diversidad. Los cursos atenderán las necesidades propias de cada persona participante, desarrollando una intervención educativa significativa para todas y cada una de ellas. Se prestará especial atención a las personas con necesidades especiales (dificultades sociales, deficiencias físicas, inmigrantes,…).

• La lengua de servicio será el **euskera**. Se trabajará sobre todo en potenciar el uso social para ofrecer a las personas participantes la posibilidad real de vivir en euskera.

Teniendo en cuenta la realidad lingüística de cada persona usuaria, se fomentará el uso del euskera, tanto entre participantes y profesores como entre las personas participantes.

4.- CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS DEL SERVICIO.

1. El contrato se regirá por las condiciones técnicas, económicas y administrativas establecidas en el presente Pliego y en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares. Asimismo, para la realización de la actividad objeto de esta adjudicación se observarán las instrucciones del Servicio de Cultura y Juventud.

2. El servicio de cursos y talleres culturales tiene como objetivo ofrecer a la ciudadanía de Ibarra una alternativa lúdico-educativa en su tiempo libre. Así mismo, se pretende que, además de ofrecer la formación correspondiente a las diferentes áreas de conocimiento, sea un espacio sociocultural que fomente la ciudadanía activa.

3. Se pretende realizar una oferta de cursos y talleres adaptados a las diferentes franjas de edad y colectivos, con al menos estos

ESKU0b760791-64f3-4f72-8ed6-c6a0051d2d34

San Bartolome plaza, 2 – ☎ 943 671138- 🖷 943 673852 - 20400 Ibarra ● Gipuzkoa www.ibarra.eus

honakoak eskainiko dira: pintura, eskulanak, altzarien eta etxerako osagarrien birziklapena, egur taila, ehoziriak-bainikak-patchwork eta tai chi. Horiez gain, erakargarriak izan daitezkeen bestelako ezagutzak eta diziplinak lantzen dituzten ikastaro eta tailerrak eskainiko dira, esaterako: arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak, osasuna, sukaldaritza, etxeko oinarrizko konponketak, lore eta baratzezaintza, eta abar.

4. Esleipen-hartzaileak ikasturtero eskaintzen den ikastaro edota tailer bakoitzeko programazioa aurkeztu beharko du. Aipatu programazioak ikastaroaren helburuak, landuko diren edukiak, metodologia, beharrezkoak diren materialen zerrenda, eta abar, jasoko ditu.

5. Ikastaro eta tailerrak goizez edota arratsaldez eskaini ahalko dira eta urritik ekainera bitartean gauzatuko dira Ibarrako Udalak zehaztutako egutegian.

6. Ikastaro edota tailer batek aurrera egiteko gutxieneko 8 ikaslek izena eman beharko dute, eta ikastaroaren ezaugarrien baitan, gehieneko ikasle kopurua zehaztuko da ere.

7. Ibarrako Udala izen ematearen izapidetzeaz, taldeak eratzeaz eta ikastaroen kobrantzaz arduratuko da.

8. Kultur ikastaro eta tailerren zerbitzuaren komunikazioaz (kartelak, diptikoak, web orria, sare sozialak,…) Ibarrako Udala arduratuko da.

9. Ikasturtearen amaieran ikastaro eta tailerretan landutakoekin erakusketa edota erakustaldia antolatuko da Ibarrako kultur etxean. Irakasleek ikasleen parte-hartzea sustatuko dute eta tailerrari dagokion atala antolatuko dute ikasleekin batera.

cursos: pintura, manualidades, reciclaje de mobiliario y complementos para el hogar, talla de madera, bolillos-patchwork y tai chi. Además, se ofertarán cursos y talleres en los que se trabajen otros conocimientos y disciplinas que puedan resultar atractivos: artes escénicas, audiovisuales, salud, cocina, reparaciones domésticas básicas, jardinería y horticultura, etc.

4. El adjudicatario deberá presentar la programación de cada curso y/o taller que se oferte cada curso. Dicha programación recogerá los objetivos del curso, los contenidos que se van a trabajar, la metodología, la relación de materiales necesarios, etc.

5. Los cursos y talleres se podrán ofertar en horario de mañana y/o tarde y se desarrollarán de octubre a junio en el calendario que determine el Ayuntamiento de Ibarra.

6. Para que un curso y/o taller prospere se deberán inscribir un mínimo de 8 alumnos y, dependiendo de las características del curso, se determinará el número máximo de alumnos.

7. El Ayuntamiento de Ibarra se encargará de la tramitación de la inscripción, constitución de grupos y cobro de los cursos.

8. El Ayuntamiento de Ibarra se encargará de la comunicación del servicio de cursos y talleres culturales (carteles, dípticos, página web, redes sociales,…).

9. A la finalización del curso escolar, se organizará una exposición y/o demostración en la de Casa Cultura de Ibarra de las materias y trabajos desarrollados en los cursos y talleres. El profesorado fomentará la participación del alumnado y organizará junto con éste la sección correspondiente al taller.

ESKU0b760791-64f3-4f72-8ed6-c6a0051d2d34

San Bartolome plaza, 2 – ☎ 943 671138- 🖷 943 673852 - 20400 Ibarra ● Gipuzkoa www.ibarra.eus

10. Adjudikazio hartzaileak ikastaroetan izena emandako ikasleen jarraipena eta asistentzia kontrola egin beharko du. Horrekin batera, udalak eskatutako txosten eta memoriak egin beharko dira.

11. Enpresa adjudikazio hartzaileak bere gain hartzen du zerbitzua emateko beharrezko giza errekurtsoak ematea, oinarri hauetan adierazi bezala. Langile hauek gutxieneko titulazioa izango dute, jarduera ezberdinetan irakasteko.

12. Langileak gai izango dira beren eginkizunak gaztelaniaz nahiz euskaraz betetzeko.

13. Lan guztiak gainbegiratu eta horien inguruko informazioa jasotzeko eskubidea gordetzen du Ibarrako Udalak. Enpresa hartzaileak Kultura eta Gazteria Zerbitzuarekin elkarlanean jardungo du kultur ikastaro eta tailerren zerbitzua behar bezala burutu dadin.

14. Jardueraren baitan ikasleek jasan lezaketen edozein motatako istripu edo gertakari kaltegarriei aurre egin ahal izateko, esleipen-hartzaileak, urtero, “kultur ikastaro eta tailerrak” programa bere hedadura osoan estaliko duen asegurua izango du, Baldintza Administratiboetan ezarritakoari jarraiki. Polizaren kopia bat udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko da jarduera hasi bezperarako beranduenez.

    Laneko istripuei, laneko segurtasun-neurriei eta Gizarte Segurantzari buruzko guztia esleipen-hartzailearen ardura izango da.

    Ibarrako Udalak ez du inolako lan harremanik izango jarduerarako kontratatutako langileekin.

10. El adjudicatario deberá realizar el seguimiento y control asistencial de los alumnos inscritos en los cursos. Todo ello acompañado de los informes y memorias que le sean solicitados por el Ayuntamiento.

11. La empresa adjudicataria asume la prestación de los recursos humanos necesarios para la prestación del servicio, en los términos expresados en las presentes bases. Dicho personal ostentará una titulación mínima para impartir en las diferentes actividades.

12. El personal será capaz de desarrollar sus funciones tanto en castellano como en euskera.

13. El Ayuntamiento de Ibarra se reserva el derecho de supervisión e información sobre todos los trabajos. La empresa receptora colaborará con el Servicio de Cultura y Juventud en la correcta ejecución del servicio de cursos y talleres culturales.

14. Con el fin de hacer frente a cualquier tipo de accidente o suceso dañino que el alumnado pueda sufrir en el desarrollo de la actividad, el adjudicatario dispondrá anualmente de un seguro que cubra, en toda su extensión, el programa "cursos y talleres culturales", de acuerdo con lo establecido en las Condiciones Administrativas. Una copia de la póliza deberá presentarse en el registro general del ayuntamiento como muy tarde a la víspera del inicio de la actividad.

Todo lo relativo a accidentes de trabajo, medidas de seguridad laboral y seguridad social será responsabilidad del adjudicatario.

El Ayuntamiento de Ibarra no tendrá relación laboral alguna con el personal contratado para la actividad.

ESKU0b760791-64f3-4f72-8ed6-c6a0051d2d34

San Bartolome plaza, 2 – ☎ 943 671138- 🖷 943 673852 - 20400 Ibarra ● Gipuzkoa www.ibarra.eus

15. Adingabeentzat antolatzen diren ikastaroetako irakasleen kasuan, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezarritakoa betez, Delitugile sexualen Erregistro Nagusian sartu gabe daudela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

15. En el caso de profesorado de cursos para menores, en cumplimiento de lo establecido en la Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia, deberán presentar certificado acreditativo de no estar inscritos en el Registro Central de delincuentes sexuales.

16. Osasun-krisien edo epidemiologikoen aurrean, enpresa-hartzaileak kontingentzia plan bat diseinatu beharko du, non jasota geratuko den egoeraren aurrean zein segurtasun- eta higiene-neurri hartuko diren, ematen diren zerbitzuek zein moldaketa izango dituzten aurrera egiteko, zein jarduera bertan behera geratuko liratekeen aurrera emateko ezintasunagatik, eta abar.

16. Ante crisis sanitarias o epidemiológicas, el empresario deberá diseñar un plan de contingencia en el que quede constancia de las medidas de seguridad e higiene ante la situación, de las adaptaciones de los servicios que se prestan, de las actividades que quedarían suspendidas por imposibilidad de progresar, etc.

17. Osasun-krisietan, enpresa-hartzaileko langileek Ibarrako Udalaren jabetzakoak diren instalazioen erabilerarako ezarrita dauden higiene eta segurtasun protokoloak bete beharko dituzte. Era berean, euren ardurapeko ikastaro eta tailerren funtzionamendurako ezarritakoak bete beharko dituzte.

17. En crisis sanitarias, el personal del empresario deberá cumplir los protocolos de higiene y seguridad establecidos para el uso de las instalaciones propiedad del Ayuntamiento de Ibarra. Asimismo, deberán cumplir los requisitos establecidos para el funcionamiento de los cursos y talleres a su cargo.

5.- MEMORIAREN BALORAZIO IRIZPIDEAK.
Kultur ikastaro eta tailerren zerbitzuaren proiektua: 49 puntu.

- Ikastaro eskaintza. (gehienez 30 puntu):
  - *Zerbitzua emateko moduari buruzko plana: Ikasketen eta gaien banaketa, edukiak, teknikak… (10 p)*
  - Diziplina eta ezagutza-arlo berritzaileen ikastaro eskaintza (10 p)
  - Adin-tarte eta kolektibo ezberdinei egokitutako ikastaro eskaintza (10 p)

5.- CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LA MEMORIA.
Proyecto de servicio de cursos y talleres culturales: 49 puntos.

• Oferta de cursos. (Máximo 30 puntos):

- Plan del modo de prestación del servicio: distribución académica y temática, contenidos, técnicas (10 p)
- Oferta formativa de disciplinas y áreas de conocimiento innovadoras (10 p)
- Oferta formativa adaptada a los diferentes tramos de edad y colectivos (10 p)

ESKU0b760791-64f3-4f72-8ed6-c6a0051d2d34

San Bartolome plaza, 2 – ☎ 943 671138- 🖷 943 673852 - 20400 Ibarra ● Gipuzkoa www.ibarra.eus

- Ikastaroak emateko metodologia eta teknologia berrien erabilera (gehienez 12 puntu):
  - Ikastaroak emateko metodologia (modu presentziala, birtuala, erdipresentziala,…) (6 p)
  - Ikastaroetan teknologia berrien erabilera txertatzea (6 p)
- Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko egindako proposamenak (gehienez 7 puntu).

6.- IBARRAKO UDALAREN BETEBEHARRAK.

1. Ibarrako Udala izen ematearen izapidetzeaz, taldeak eratzeaz eta ikastaroen kobrantzaz arduratuko da.
2. Kultur ikastaro eta tailerren zerbitzuaren komunikazioaz (kartelak, diptikoak, web orria, sare sozialak,…) Ibarrako Udala arduratuko da.
3. Ikastaroetako ikasturteko egutegia zehaztea.
4. Kultur ikastaroak eta tailerrak aurrera eramateko behar diren udal instalazioak enpresa hartzailearen esku uztea.
5. Enpresari prezioa ordaintzea.
6. Ahal den guztietan, enpresa-hartzaileari laguntzea.

7.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK.

Zerbitzu guztia euskaraz eskainiko da.

1.- Hizkuntza-gaitasuna.

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan

- Metodología de impartición y uso de nuevas tecnologías (máximo 12 puntos):
  - Metodología de impartición (presencial, virtual, semipresencial,…) (6 p)
  - Incorporación del uso de las nuevas tecnologías en los cursos (6 p)
- Propuestas realizadas para mejorar la calidad del servicio (hasta 7 puntos).

6.- OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE IBARRA.

1. El Ayuntamiento de Ibarra se encargará de la tramitación de la inscripción, de la constitución de los grupos y del cobro de los cursos.
2. El Ayuntamiento de Ibarra se encargará de la comunicación del servicio de cursos y talleres culturales (carteles, dípticos, página web, redes sociales,…).
3. Definir el calendario de cursos para el curso académico.
4. Poner a disposición de la empresa receptora las instalaciones municipales necesarias para el desarrollo de los cursos y talleres culturales.
5. Pago del precio a la empresa.
6. Siempre que sea posible, asistir al empresario receptor.

7.- CRITERIOS LINGÜÍSTICOS.

Todo el servicio se ofrecerá en euskera.

1.- **Capacidad lingüística**.- En la medida en que tengan relación con la Administración y con terceros, el personal de la empresa contratada deberá garantizar unas condiciones de competencia lingüística equivalentes a las que deba cumplir la propia Administración, por lo que, en atención a la naturaleza de los servicios a

ESKU0b760791-64f3-4f72-8ed6-c6a0051d2d34

San Bartolome plaza, 2 – ☎ 943 671138- 🖷 943 673852 - 20400 Ibarra ● Gipuzkoa www.ibarra.eus

izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute langile guztiek.

prestar, todo el personal deberá acreditar el nivel de competencia C1 del Marco Común Europeo.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Antes de la adjudicación del contrato la empresa deberá acreditar que las personas que van a prestar el servicio tienen la competencia lingüística requerida. Asimismo, en el caso de que con posterioridad a la contratación de la empresa se incorporasen nuevas personas que prestaran el servicio, éstas deberán acreditar el perfil lingüístico requerido.

Subrogazio-eranskinean jasotako langileei ez zaie C1 hizkuntza-maila banaka egiaztatzeko betekizuna eskatuko. Salbuespen horrek ez du enpresa kontratista kontratuaren hizkuntza-baldintzak betetzetik salbuesten; enpresak zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan behar bezala ematen dela eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen direla ziurtatu beharko du.

Al personal incluido en el anexo de subrogación no se le exigirá el requisito de acreditar individualmente el nivel lingüístico C1. Esta exención no exime a la empresa contratista del cumplimiento de los requisitos lingüísticos del contrato, debiendo asegurar la correcta prestación del servicio en las dos lenguas oficiales y la garantía de los derechos lingüísticos de los ciudadanos.

Kontratua gauzatzen den bitartean zerbitzura atxikitzen diren langile berriek eta subrogatutako langileen ordezkoek eskatutako C1 maila egiaztatu beharko dute. Salbuespenez, behar bezala arrazoitutako egoeretan, kontratazio-organoaren aldez aurreko baimenarekin, betekizun hori aldi baterako malgutu ahal izango da, baldin eta zerbitzuaren hizkuntza-baldintzak, interes publikoa eta kontratuaren xedea erabat bermatzen badira.

El personal de nuevo ingreso que se adscriba al servicio durante la ejecución del contrato y los sustitutos del personal subrogado, deberán acreditar el nivel C1 exigido. Excepcionalmente, en situaciones debidamente motivadas, previa autorización del órgano de contratación, podrá flexibilizarse temporalmente este requisito siempre que se garanticen plenamente las condiciones lingüísticas del servicio, el interés público y el objeto del contrato.

Aurreikuspen hau Langileen Estatutuaren 44. artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 130. artikuluan ezarritako subrogazioaren eta lan-harremanen jarraitutasunaren printzipioetan oinarritzen da, baita Euskadiko Kontratazio Administratiboaren Aholku Batzordearen 1/2016 Txostenean eta 19/2024 Dekretuaren 4.e) eta 13. artikuluetan jasotako proportzionaltasunaren eta hizkuntza-eskubideak bermatzearen printzipioetan ere.

Esta previsión se basa en los principios de subrogación y continuidad en las relaciones laborales establecidos en el artículo 44 del Estatuto de los Trabajadores y en el artículo 130 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, así como en los principios de proporcionalidad y garantía de los derechos lingüísticos recogidos en el Informe 1/2016 de la Junta Asesora de Contratación Administrativa de Euskadi y en los artículos 4.e) y 13 del Decreto 19/2024.

ESKU0b760791-64f3-4f72-8ed6-c6a0051d2d34

San Bartolome plaza, 2 – ☎ 943 671138- 🖷 943 673852 - 20400 Ibarra ● Gipuzkoa www.ibarra.eus

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea. Dekretu honetan jasotzen diren agirien bitartez egiaztatuko da hizkuntza gaitasuna: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

2. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira hizkuntza titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako kasuak.

Baldin eta, behin kontratazioa adjudikatuta, hizkuntza gaitasuna akreditatu duten langileetakoren bat beste pertsona batek ordezten badu, pertsona horrek ere akreditatua izan beharko du hemen ezarritako hizkuntza gaitasuna.

Adierazitako ziurtagiri edo salbuespen agirien bidez egiaztatu ezin denean, administrazioak langilea elkarrizketatu ahal izango du.

2.- Hizkuntza paisaia.

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna

Para acreditar la competencia lingüística se podrán utilizar los dos medios siguientes:

1. Presentar documento acreditativo de que la persona o personas encargadas de la prestación del servicio tienen la capacidad lingüística requerida. La acreditación de la competencia lingüística se realizará mediante la documentación contenida en el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

2. Asimismo, según el Decreto 47/2012, de 3 de abril, se tendrán en cuenta los estudios oficiales realizados en euskera y se tendrán en cuenta los supuestos exentos de acreditación mediante títulos y certificados lingüísticos.

En el caso de que, una vez adjudicada la contratación, alguna de las trabajadoras que hayan acreditado la capacitación lingüística sea sustituida por otra persona, ésta también deberá tener acreditada la competencia lingüística aquí establecida.

Cuando no pueda acreditarse mediante los certificados o documentos de excepción indicados, la administración podrá entrevistar a la persona trabajadora.

2.- Paisaje lingüístico.

Los rótulos, notas, señales y demás comunicaciones generales se realizarán mediante pictograma y tendrán a su lado un mensaje explicativo en euskera.

Cuando no sea posible hacerlo por pictograma, los mensajes se emitirán en euskera cuando sean conocidos o comprensibles.

Cuando los dos casos anteriores sean imposibles, se realizarán en bilingüe dando

ESKU0b760791-64f3-4f72-8ed6-c6a0051d2d34

San Bartolome plaza, 2 – ☎ 943 671138- 🖷 943 673852 - 20400 Ibarra ● Gipuzkoa www.ibarra.eus

emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

3.- Erabilera herritarrekin.
Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan…) euskaraz egingo da. Ikastaroen hartzaileak euskaraz ulertzen ez dutenean, ikastaroan euskaraz presentzia izan beharko du beti, hasierako eta bukaerako agurretan, tarteka euskarazko hitzak sartuz… betiere herritar guztiek ulertzen dutela bermatuz.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz egingo dira.

Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

4.- Erabilera administrazioarekin.
Kontratu egileak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz eskatzeko

prioridad al euskera, previo acuerdo con la administración.

3.- Uso con la ciudadanía.
La recepción y respuesta al usuario del servicio se realizará en las mismas condiciones lingüísticas que las requeridas a la Administración.

Siguiendo los criterios lingüísticos aprobados por la Administración, la comunicación oral con la ciudadanía (primera palabra, teléfono, contestador, presencial, altavoz, reuniones…) se realizará en euskera. Cuando las personas destinatarias de los cursos no entiendan en euskera, deberá tener siempre presencia en el curso en euskera, en los saludos de inicio y de fin de curso, introduciendo ocasionalmente palabras en euskera... siempre garantizando que todos los ciudadanos lo entiendan.

Asimismo, las notificaciones y comunicaciones de todo tipo (impresos, avisos, avisos, horarios, facturas y otros documentos de compraventa…) se realizarán en euskera.

Cuando el/la ciudadano/a lo solicite, se realizarán en euskera y castellano, priorizando el euskera.

La empresa contratada deberá garantizar la corrección y adecuación de los textos en euskera utilizados en la prestación del servicio. Para certificarlo, los textos de gran difusión y/o repetitivos serán trasladados al Servicio de Euskera del Ayuntamiento para comprobar su corrección y si el nivel fuera inadecuado se solicitará a la empresa su corrección a su costa.

4.- Uso con la Administración. El contratante podrá solicitar al adjudicatario, en euskera, todo tipo de comunicaciones, tanto orales como escritas (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas…) que se generen a través de este tipo de

ESKU0b760791-64f3-4f72-8ed6-c6a0051d2d34

San Bartolome plaza, 2 – ☎ 943 671138- 🖷 943 673852 - 20400 Ibarra ● Gipuzkoa www.ibarra.eus

esleipendunari.

8.- KONTRATUA BERRAZTERTU ETA ALDATZEA.

Administrazioak kontratua alda dezake**,** interes publikoko arrazoiengatik, aurreikusi gabeko arrazoiengatik, eta kontratistak ez du kalte-ordainerako eskubiderik izango. Ondoko irizpideak ezartzen dira:

a) Xedeari dagokionez: Kontratua sinatutakoan, udalak aldaketak ezar ditzake zerbitzua osatzen duten elementuen interes publikoko arrazoiengatik, beti ere, beste behar batzuengatik edo ezusteko arrazoiengatik baldin bada. Kontratistak ez du kalte-ordain eskubiderik izango, ez badiote oreka finantzarioari eragiten. Administrazioak egindako aldaketek eragin ekonomikorik ez badute, kontratistak ez du kalte-ordain eskubiderik izango arrazoi horrengatik.

b) Zioei buruz: aldaketaren arrazoia izan daiteke zerbitzua arautzen duten baldintza teknikoetan jasotako edozein.

c) Sektore Publikoko Kontratu Legearen 204. artikuluari jarraiki, kontratua aldatzeko honako kausa aurreikusten da:

COVID-19 antzerako beste hondamendi naturalen, osasun-krisien edo epidemiologikoen ondorioz, udalaren menpe ez dauden arrazoiengatik eta osasun arauak betetzearren, aurreikusitako beharrak (irakasle gehiago, ratio txikiagoak, aurreikusitako segurtasun neurri zorrotzagoak…) aurreikusitakoak baino handiagoak balira, urteko aurrekontua gehienez %20 handitu ahal izango da. Handitze hau behar bezala justifikatu beharko du enpresa hartzaileak.

contrato.

8.- REVISIÓN Y MODIFICACIÓN DEL CONTRATO.

La Administración podrá modificar el contrato por razones de interés público, causas imprevistas, sin que el contratista tenga derecho a indemnización.
Se establecen los siguientes criterios:

a) En relación con el objeto: una vez firmado el contrato, el Ayuntamiento podrá establecer modificaciones por razones de interés público de los elementos que integran el servicio, siempre que ello obedezca a otras necesidades o causas imprevistas. El contratista no tendrá derecho a indemnización alguna, siempre que no afecten al equilibrio financiero.
Si las modificaciones operadas por la Administración no tienen repercusión económica, el contratista no tendrá derecho a indemnización por este motivo.

b) Sobre los motivos: el motivo de la modificación puede ser cualquiera de las recogidas en los pliegos técnicos que rigen el servicio.

c) De conformidad con el artículo 204 de la Ley de Contratos del Sector Público, se prevé la siguiente causa de modificación del contrato:

Si como consecuencia de otros desastres naturales, crisis sanitarias o epidemiológicas similares a la COVID-19, por causas no dependientes del Ayuntamiento y en cumplimiento de normas sanitarias, las necesidades previstas (más profesorado, menores ratios, medidas de seguridad más estrictas de las previstas...) fueran superiores a las previstas, se podrá incrementar el presupuesto anual hasta un máximo de 20%. Esta ampliación deberá ser debidamente justificada por la empresa receptora.

ESKU0b760791-64f3-4f72-8ed6-c6a0051d2d34

San Bartolome plaza, 2 – ☎ 943 671138- 🖷 943 673852 - 20400 Ibarra ● Gipuzkoa www.ibarra.eus

9.- ZERBITZUAREN KONTROL ETA JARRAIPENA.

Kultura eta Gazteria Sailak behar bezalako jarraipena egin ahal izateko, zerbitzuaren erabiltzaileentzat proposatutako helburuak bete diren neurtzeko, langileekin eta behar izanez gero adjudikaziodun enpresarekin bilerak egin ahal izango ditu. Era berean, Kultura eta Gazteria Sailak ondorengo eskumenak izango ditu:

- Zerbitzuaren kudeaketa zuzendu, gainbegiratu eta kontrolatu: bere kalitatea ebaluatu.

- Kultur ikastaro eta tailerren funtzionamendua, aldaketak, lokalen irekierak eta itxierak arautu eta bestelakoak.

- Zerbitzuaren adjudikaziodunek proposatutako programazioa ikertu eta gainbegiratu eta izaera tekniko, inguruabar edo jendearen intereseko delako balizko aldaketak proposatu.

Zerbitzu hauekin harreman zuzena duten ekintzak gainbegiratzeko ahalmena izango du Kultura eta Gazteria arloko arduradunak, adjudikaziodunak bere betebeharrak betetzen dituen ikusteko. Era berean, kontratuaren baldintza teknikoak eta zerbitzuaren gainontzeko inguruabarrak (ordutegiak,…) betetzen diren ere ikustatu ahal izango ditu.

9.- CONTROL Y SEGUIMIENTO DEL SERVICIO.

Para que el Departamento de Cultura y Juventud pueda realizar un adecuado seguimiento de los objetivos propuestos para las personas usuarias del servicio, para medir el cumplimiento, podrá mantener reuniones con el personal y, en su caso, con la empresa adjudicataria. Asimismo, el Departamento de Cultura y Juventud tiene atribuidas las siguientes competencias:

• Dirigir, supervisar y controlar la gestión del servicio: evaluar su calidad.

• Regular el funcionamiento de cursos y talleres culturales, modificaciones, aperturas y cierres de locales y otros.

• Estudiar y supervisar la programación propuesta por los adjudicatarios del servicio y proponer posibles modificaciones de carácter técnico, circunstancial o de interés público.

La responsable del área de Cultura y Juventud estará facultada para supervisar las acciones que tengan relación directa con estos servicios, a fin de comprobar el cumplimiento de las obligaciones del adjudicatario. Asimismo, podrá comprobar el cumplimiento de las condiciones técnicas del contrato y demás circunstancias del servicio (horarios,…).

Ibarran, 2026ko uztailaren 23an
KULTURA ETA GAZTERIA TEKNIKARIA

IBARRAKO UDALA GIPUZKOA

Stua.: Nekane Azurmendi Etxegarai

San Bartolome plaza, 2 – ☎ 943 671138- 🖷 943 673852 - 20400 Ibarra ● Gipuzkoa www.ibarra.eus

Nork Sinatua / Firmado por: MIREN NEKANE AZURMENDI ECHEGARAY - 35767022K
2026/07/23 16:00:52

EKS | CSV: ESKU0b760791-64f3-4f72-8ed6-c6a0051d2d34
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04210
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04210